



AZPEITIA

BETHARRAM ERAKUSKETA ARETOA

20730 AZPEITIA

Edozein argibiderako:

943 812 808 edo 688 751 887 telefonoetara deitu.

Erakusketaren epea amaitzerakoan, lanak Arte eta Diseinu eskola elkartean gordeko dira hiru hilabetez. Epe horretatik aurrera ezingo dira berreskuratu.

11. kale
pintura
lehiaketa

2023ko MAIATZAK 7

Azpeitia
Denontzat



Kulturaz
Azpeitiko Kultur Kooperatiba

Azpeitiko Udalak, Arte eta Diseinu eskola elkartearekin batera, **II.Kale Pintura Lehiaketa** antolatu dute **2023ko maiatzaren 7**rako ondorengo oinarriekin:

1.- Edozeinek parte hartu ahal izango du, eta nahi beste lan aurkeztu ahal izango dira.

2.- Lanak kalean eta Azpeitiko lur eremuaren barne egin beharko dira partaide bakoitzak aukeratutako eremu edo lekuan. Lan horiek edozein teknika edo material erabiliz egin daitezke.

3.- Lanak, nahi eta nahiez, argitaragabeak izan beharko dute, hau da, norberak sortutakoak eta lanaren egileak izango du erantzunkizun osoa baldintza hau ez betetzearen ondorioz gerora gerta daitekeen edozein erreklamazioren aurrean.

4.- Lanerako euskarriak Betharram erakusketa aretoan zigilatuko dira goizeko 9etatik 11etara bitartean. Euskarriak, lanerako aurretik prestatuak eraman daitezke, baina ez da onartuko marrazki, zirrimarra edo marra aztarrenik edukitzea. Euskarriak gogorra izan beharko du, ondoren izango den erakusketarako.

5.- Bukatutako lanak Betharram aretoan aurkeztu beharko dira 13:00etatik 13:30etara bitartean, egilearen datu hauekin batera:

- **Jaiotze data, N.A.N. zenbakia eta herria.**
- **Helbidea eta telefonoa.**

6.- Sariak honako hauek izango dira:

- 1. saria - 800 €**
- 2. saria - 500 €**
- Herritar saria - 300 €**

16 urtetik beherakoen atala. Arte materialaz osatutako saria:

- **Gaztetxoaren saria: 12-16 urte bitarteko onenari.**
- **Haurren saria: 12 urte bitarteko onenari.**

**Sariak ezin izango zaizkio eman egile berari bi lehiaketatan jarraian. Epaimahaiak eskubidea izango du sarietako edozein eman gabe uzteko.*

7.- Lehenengo bi lan sarituak, udalaren jabegora pasako dira.

8.- Antolatzaileek izendatutako epaimahai gaitu batek aukeratuko ditu lanik onenak. Epaimahaiak hartutako erabakia eta epaimahaikideen izenak lehiaketa egun berean, 14:30ean, jakinaraziko dira. Ondoren, sari banaketa izango da. Epaimahaiaren iritziz aurkeztutako lanen kalitate artistikoa nahikoa ez balitz, sariak hutsik geratuko lirateke.

Epaimahaiaren erabakiak aldaezinak izango dira eta askatasun osoa izango du oinarri hauetatik sor litezkeen zalantzen gaineko erabakiren bat hartzeko, une oro bere erabakia nagusi izango delarik.

9.- Aurkeztutako lanekin egilearen baimena eskatuz, erakusketa bat egingo da Betharram arteoan maiatzak 8tik maiatzak 14era.

10.- Lanak jasotzera etortzen den pertsonari N.A.N zenbakia erakustea eskatuko zaio.

11.- Epaimahaiak Azpeitiko Udalak eta Arte eta Diseinu eskola elkarteak izendatuko du.

12.- Lehenengo bi lan sarituak, udalaren jabegora pasako dira eta honek Kale Pintura Lehiaketetako edizio bakoitzaren garapena sustatzeko nahi duen edo egoki iritzitako erabilera eman ahal izango dio, margolan irabazlea bihurtuko baita edizio bakoitzaren sustapenerako oinarritzko ardatz.

13.- Ez dira onartuko oinarri hauek betetzen ez dituzten edo baldintza hauetara egokitzen ez diren lanak.

14.- Lehiaketa honetan parte hartzeak arau hauek guztiak onartzea dakar. Antolatzaileek lehiaketaren onerako izan litezkeen aldaketak egin ahal izango dituzte. Era berean, aurkeztutako lanak zaintzeaz arduratuko dira antolatzaileak, baina ez dute lanek lehiaketan zehar izan lezakete kalteen erantzukizunik izango.

· Epaimahaiak erabakia hartzen ari den bitartean luntxa eskainiko zaie parte-hartzaile guztiei Sanagustin kulturgunean.